

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA

Administrazio Kontseiluaren 89/2022 Ebazpena, apirilaren 8koa, Gazteriaren Foru Erakundeak garatutako programen kudeaketa arautzen duena araudia onesteko erabakia

Ekainaren 20ko 22/1988 Foru Arauak, Gazteriaren Foru Erakundea erakunde autonomoa eratzen duenak, 2. artikuluan xedatutakoaren arabera, Gazteriaren Foru Erakundearen xedeak dira gazteriaren hezkuntza eta sustapen osoarekin lotura duten edozein eratako ekintzak antolatu, kudeatu, prestatu eta gauzatzeko Arabako Lurralde Historikoan, bai eta azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunak eta lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanak, ezarritako eskumenen esparruan ere.

Helburu horiek betetzeko, Gazteriaren Foru Erakundeak haur eta gazteentzako jarduerak antolatzen ditu urtean zehar, hezkuntza, aisialdi eta astialdiaren arloan, aisialdi hezitzailea eta balioetan oinarritutako ikaskuntza indartzeko asmoz.

Parte-hartze hori arautzeko eta erakunde autonomoak antolatutako jardueretan eta programetan parte hartzeko administrazio-prozedurak arautzeko, bai eta gardentasuna, informazio publikorako sarbidea eta gobernu ona errazteko ere, programa horien kudeaketa arautzen duen araudia argitaratu zen 2016ko maiatzaren 11ko ALHAO 53 zenbakian.

Geroago, 2017an, araudi hori aldatu zen, ALHAO, 2017ko martxoaren 10ekoa, eta prozeduran aldaketak sartu ziren.

Azkenik, 2019ko martxoaren 18ko 33. zenbakiko ALHAOn azken aldaketak sartu ziren.

Sistema informatikoetan izandako aldaketak eta datuen babesaren arloko lege-aldaketetara egokitzea direla eta, arauaren edukia berrikusi da.

Horrenbestez, zerbitzu teknikoek xede horretarako egindako arauaren edukia, honen eranskin gisa doana, aztertu ondoren, gaurko egunez honako hau onartzen da:

ERABAKIA

Lehenengoa. Onartzea Gazteriaren Foru Erakundeak garatutako programen kudeaketa arautzen duen araudia, honen eranskin gisa doana.

Bigarrena. Baimena ematea Gazteriaren Foru Erakundearen zuzendari-kudeatzaileari araudia garatzeko beharrezkoak diren egintzak egin ditzan.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea. Erabaki honek argitaratzen den egunetik bertatik aurrera izango du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko apirilaren 22a

Gazteriaren Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluaren Burua
ANA M. DEL VAL SANCHO

Gazteriaren Foru Erakundearen zuzendari kudeatzailea
ANA ROSA LÓPEZ DE URALDE GÓMEZ

Gazteriaren Foru Erakundeak garatutako programen kudeaketaren araudia

Azalpena

Gazteriaren Foru Erakundeak haur eta gazteentzako hainbat jarduera antolatzen ditu urtean zehar, hezkuntzaren, aisialdiaren eta denbora librearen arloan.

Gazteriaren Foru Erakundeak eskaintzen dituen programa guztien funtsezko helburua da parte hartzaileei espazio ludiko, integratzaile eta bazterkeriarik gabekoa aurkeztea, non berdinen arteko ezagutza eta bizikidetzarako aukerak, esperientzia trukea, talde lana, parte hartzaileen garapen fisiko eta emozionala eta bakearen, berdintasunaren, elkartasunaren, ekologiaren eta kultura guztiekiko errespetuaren balioak onartzea sortuko baitira.

Era berean, garrantzitsua da genero berdintasunaren arloan sentsibilizatzea eta heztea, pixkanaka gizonen eta emakumeen arteko benetako parekotasuna lortzeko.

Beharrezkotzat jotzen denez administrazio prozedurak arautzea erakunde autonomoak antolatutako jarduera eta programetan parte hartzeko, bai eta gardentasuna, informazio publikorako sarbidea eta horien garapenean gobernu ona errazteko ere, Gazteriaren Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko buruaren 2019ko martxoaren 1eko ebazpen bidez, Gazteriaren Foru Erakundeak garatutako programen kudeaketaren araudia onetsi zen.

Ordudanik ezarri diren aldaketa teknologikoen eta administrazio kudeaketako aldaketek araudi hori berrikustea eta aldaketa horietara egokitzea eragiten dute.

Hala, I. Kapituluak sinplifikatu da aplikazio eremuari dagokionez, eta garatutako jardueren bi ildo nagusiak soilik adierazten dira. II. Kapitulan berariaz adierazten da jardueretan parte hartzeko aukera dutela Trebiñuko enklabean bizi diren pertsonak.

III. Kapitulan gertatu dira aldaketarik esanguratsuenak, egungo prozedura telematikoa jaso baita, bai izena emateko, bai plaza erreserbatzeko eta gero kuota ordaintzeko.

IV. Kapitulan, kuotari buruzkoan, sinplifikatu egin da hobarien aipamena, prezio publikoei buruzko foru dekretuan arautzen baitira jada.

V. eta VI. kapituluek jardueretan parte hartzeko baldintzei buruzko xedapen guztiak jasotzen dituzte, bai eta parte hartze horren ondoriozko erantzukizunak ere.

Azkenik, VII. Kapitulan datuen babesari buruzko informazioa eguneratu da, Datuak Babesteko ordezkariaren figura sartuz.

I. Kapituluak

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea

Arau honen xedea da arautzea Gazteriaren Foru Erakundearen eskaintza publikoan sartuta dauden aisialdi hezigarriko programa eta jardueretan parte hartzeko eta plazak esleitzeko betekizunak eta prozedura.

2. artikulua

Gazteriaren Foru Erakundeak antolatutako jarduera guztietan Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hura aldatu edo garatzen duten gainerako arauetan ezarritakoa betetzen dela bermatuko da, betiere programa bakoitzaren ezaugarrien arabera.

3. artikulua. Aplikazio eremua

Gazteriaren Foru Erakundeak antolatutako programa hauei aplikatuko zaie araua:

- Udaraba: Haurren eta gazteen aisialdia eta denbora libreko udako kanpaina.
- Eskola programak. Ikastetxeetarako hezkuntza programak.

II. Kapitulu

Parte hartzaileak

4. artikulua. Parte hartzaileak

4.1. Udako kanpainan parte hartu dezakete Arabako Lurralde Historikoko edozein udalerritan eta Trebiñuko enklabean erroldatuta dauden neska-mutilek, baldin programa bakoitzerako ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

4.2. Eskola programetan parte har dezakete Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabean dauden ikastetxeak.

III. Kapitulu

Izena emateko eta plaza erreserbatzeko prozedura

5. artikulua. Izena ematea

5.1 Udaraba programan izena emateko prozesua.

a) Udaraban izena emateko inprimaki bakoitzean gehienez hiru parte hartzaile sartu ahal izango dira.

b) Ez da onartuko pertsonako eta programako eskabide bat baino gehiago. Pertsona bera inprimaki batean baino gehiagotan agertzen bada, egindako azken eskaera baino ez da onartuko, eta baliogabetu egingo dira gainerakoak.

c) Eskabideak ez baditu eskatutako baldintzak betetzen, interesdunari eskatuko zaio zuzen dezala edo dagokion dokumentazioa aurkez dezala. Horrela egin ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko da.

d) Programan inskribatutako haurren arduradunak haien legezko tutoreak izango dira beti, eta ez beste pertsona batzuk. Hori horrela ez balitz, plazak esleitzeko eta erreserbatzeko prozesutik kanpo gera litezke.

e) Izena ematean datuak faltsutzeak programatik kanpo uztea ekar dezake.

f) Dibertsitate funtzionala duten partaideek bi urteko tartea izango dute benetako adinaren eta eskatutako txandarako eta instalaziorako eskatzen denaren artean, betiere instalazioak horrela uzten badu, eta ez badira, inolaz ere, adin nagusikoak.

5.2 Eskola programetan izena emateko prozesua.

a) Parte hartzeko eskaerak Gazteriaren Foru Erakundeari helarazi beharko zaizkio, programa bakoitzean adierazitako moduan.

b) Eskola programetarako, eskaera inprimaki bat bete beharko da ikasgela, ikastetxe eta eskatutako programa bakoitzeko.

c) Eskola programei dagokienez, Gazteriaren Foru Erakundeak ez du laguntzeko monitore edo laguntzaile espezifikorik eskainiko desgaitasunen bat edo hezkuntza beharizan bereziren bat duten ikasleentzat. Ikastetxeak berak izango ditu langile laguntzaile horiek.

d) Hezkuntza programa guztietan ikastetxeko irakasleek parte hartu eta lagundu behar dute. Egonaldi hori doakoa izango da irakasle batentzat, ikasgela eta programa bakoitzeko.

6. artikulua. Plazaren erreserba

6.1. Udaraba.

a) Zozketa.

Udaraba kanpainan plazen esleipenean aukera berdintasuna bermatu dadin, Gazteriaren Foru Erakundeak zozketa publikoa egingo du. Hala ere, zozketarik behar ez duten jarduerak egon daitezke.

Izen emate bakoitzari zenbaki bat esleitzen zaio eta inprimaki horretan ageri diren pertsona guztiek zenbaki berarekin parte hartzen dute zozketan.

Zozketa publiko horren bidez, izen emate bakoitzean plaza aukeratzeko hurrenkera ezartzen da.

Udaraba kanpainako programa bakoitzak bere zozketa izango du.

Udarabako zozketaren ondoren, izena emandako pertsona bakoitzak web orrian kontsultatu ahal izango du zein hurrenkera zenbaki egokitu zaion, baita plaza, instalazioa eta txanda zein egun eta ordutan aukeratu beharko duen ere. Hautaketa hori modu telematikoan egingo da.

b) Plaza erreserbatzea.

Esleitutako egun eta ordutik aurrera, web orrian sartu eta nahi d(it) uen plaza(k) erreserbatu ahal izango d(it) u une horretan eskuragarri dagoen eskaintzaren artean.

Izen emate berean pertsona bat baino gehiago agertzen bada, plaza erreserbatzeko ordena bat ezartzen da, inskribatuta dauden hurrenkerarekin bat datorrena.

Erreserba hori behin-behinekoa izango da, harik eta ordainketa egin eta, hala badagokio, eskatutako dokumentazioa igo arte.

Dagokion kuota ordaindu dela eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu dela egiaztatu ondoren, plazaren erreserba formalizatuko da. Datu pertsonalei dagokienez soilik aldatu ahal izango da.

c) Integrazioko plazen esleipena desgaituentzat edo heziketa beharrian bereziko pertsonentzat

Desgaitasuna edo hezkuntza premia bereziak dituzten pertsonentzako plaza erreserba bat ezartzen da, ehuneko 5koa "Udalekuak" programan eta ehuneko 3koa "Gazte Bidaiak" programan. Pertsona horiek banaka eman beharko dute izena kanpainan, eta izena emateko inprimakian dagokien laukitxoan adierazi beharko dute zer egoeratan dauden, laguntzako monitoreak edo monitore espezifikoak eduki ahal izateko. Adierazten ez bada, Gazteriaren Foru Erakundeak ez du bermatzen horrelako monitoreak izango dituztenik.

Izena eman ondoren eta zozketa baino lehen, desgaitasunaren egiaztagiria edo partaideak zer hezkuntza berriz berezi duen egiaztatzen duen txostena eta informazio pertsonalaren fitxa beteta aurkeztu beharko dira.

Zozketa egin ondoren, Balorazio Batzorde bat bilduko da izen emate horiek aztertzeko eta parte hartzailearentzat aukerarik egokiena zein den baloratzeko.

Batzorde horrek osaera orekatua izango du, eta ahal dela bi sexuek gutxienez % 40ko ordezkari izango dute.

Kasuak baloratu ondoren, plaza esleituko da Balioespen Batzordeak erabakitako irizpideen arabera eta gurasoen edo tutoreen laguntzarekin, kontuan hartuta kolektibo horrentzat erreserbatutako plazak libre dauden aukeratutako instalazioetan eta txandetan, baita horien ezaugarri arkitektonikoak ere.

Baldin eta, jardueran zehar hautematen bada adingabe desgaituek edo beharrian berezikoek egokitze, integrazio edo jokabide arazoak dituztela, eta horrek arriskua eragin ahal badu osotasun fisikorako, edo elkarbizitza eragozten badu, berba egingo da familiarekin edo ardura-dunekin, eta egoeraren berri emango zaie, konponbide bat eman diezaioten; hala, Gazteriaren Foru Erakundeak, kasu horietan, proposatu ahal izango du instalazioa aldatzea, edo etxera itzul dadila ere denbora baino lehen.

Plaza posible guztiak behin betiko esleitu ondoren, hutsik geratzen direnak txanda orokorrera igaroko dira.

d) Plaza libreak.

Libre dauden plazak txanda bakoitza hasi aurreko egunera arte gorde ahal izango dira.

6.2. Eskola programak.

Eskola programetan egonaldiak esleitzeko, ez da zozketarik egingo. Eskabide horien ku-deaketa eta daten esleipena inskripzio ordenaren arabera egingo da.

Izena emateko epea amaitu ondoren, onartutako ikastetxe parte hartzaileen zerrenda eta eskola programa bakoitzean esleitutako datak argitaratuko dira web orrian.

IV. Kapituluia

Kuota arautzea

7. artikulua. Kuota

7.1. Udaraba kanpainaren kuota.

Eskainitako jardueretan parte hartzeko prezio publikoak edo tarifak kuotak ordaintzeko unean indarrean dagoen prezio publikoak arautzen dituen foru dekretuak zehaztuko ditu. Plazaren esleipena ez da behin betikoa izango harik eta kuota ordaindu dela eta horretarako eskatutako dokumentazioa aurkeztu dela egiaztatu arte.

Kuota orokorrean hobariak badaude, izena ematean edo plazaren erreserban horretarako gaitutako tokian eskatu beharko da. Hala egin ezean, ezin izango da eskatu.

Hobaria jasotzeko eskubidea izateko eskatzen diren baldintzek indarrean egon beharko dute plaza erreserbatzeko unean.

7.2. Eskola programen kuota.

a) Eskainitako eskola programetan parte hartzeko prezio publikoak edo tarifak kuotak ordaintzeko unean indarrean dagoen prezio publikoak arautzen dituen foru dekretuak zehaztuko ditu.

b) Parte hartzen duten ikastetxeek ordainduko dute kuota hori, Gazteriaren Foru Erakundearen aterpetxeetan ematen diren zerbitzu eta jardueren prezio publikoak arautzen dituen araudia onartzen duen foru dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz.

7.3. Jardueran baja ematea eta kuotak itzultzea

a) Edozein jardueratako bajaren berri lehenbailehen emango zaio erakunde horri.

b) Udaraban kuota itzultzea eskatzeko, inprimakia aurkeztu beharko da, jardueran izandako bajaren arrazoia agiri bidez adieraziz eta justifikatuz. Ordaindutako kuota ez da itzuliko, Gazteriaren Foru Erakundearen iritziz behar bezala justifikatutako arrazoiak daudenean izan ezik. Edonola ere, eskabidearekin batera justifikazio agiriak aurkeztu beharko dira.

c) Eskola programetan, eskabidea osorik edo zati batean ezeztatzeko eta parte hartzaileen kopurua murrizteko, Gazteriaren Foru Erakundeko aterpetxeetan ematen diren zerbitzu eta jardueren prezio publikoak arautzen dituen araudia bete beharko dute eskabideek.

d) Behin jarduera hasitakoan, ez da itzuliko kuota inolaz ere.

V. Kapituluia

Berriazko xedapenak eta erantzukizunak

8. artikulua. Erantzukizunak

a) Gurasoek eta/edo tutoreek, beren eta seme-alaben datuez gain, begirale taldeak bere hezkuntza zereginak garatzeko eta parte hartzaileek jardueran esperientzia ona izan dezaten ezagutu behar duen beste edozein informazio eman beharko dute.

b) Aitaren, amaren edo tutorearen erantzukizuna da, fitxa medikoa beteta, Gazteriaren Foru Erakundeari jakinaraztea ea berak edo parte hartzaileak gaixotasunen bat (gaixotasun infekzio-kutsakorrek edo parasitosisia, zorriak, etab.) duen, beharrezkoak diren prebentzio neurriak jartzeko. Era berean, jakinarazi beharrezkoa izango da, araudi honetako 11.d artikuluan

xedatutakoaren ondorioetarako, partaidea etengabeko jarraipen mediku bat edo probak edo entseguak egitea dakarren mediku tratamendu edo ikerketa egiten dagoela, edo jarduera hasieran gaixorik dagoela.

c) Udaraba programan, Gazteriaren Foru Erakundeak istripu aseguru bat kontratatuko du parte hartzaileentzat.

d) Gazteriaren Foru Erakundeak Udaraba kanpainako jardueretan parte hartzen dutenekin duen erantzukizuna programaren jarduerak egiten ari diren denborara eta kasu bakoitzean adierazitako irteera eta iritsiera lekutik eta lekuraino garraiatzen ari diren denborara hedatzen da. Ondorioz, gurasoen edo legezko tutoreek berriz ere izango dute zaintza eginbeharra Gazteriaren Foru Erakundearena bukatzen den momentutik, hau da, parte hartzaileak kasuan-kasuan ezarritako lekura heltzen direnetik aurrera.

e) Adingabea jardueratik kanporatzen dutenean, gurasoen edo tutorearen erantzukizuna izango dira etxera eramatea eta gastuak.

f) Eskola programetan, ikastetxea izango da datu horiek emateko arduraduna.

g) Gazteriaren Foru Erakundeak ez du bere gain hartzen datu horiek ezkutatzek dakartzan ondorioen erantzukizuna, eta dagozkion lege ekintzak beretzat gordetzen ditu.

h) Gazteriaren Foru Erakundeak ez ditu inola ere bere gain hartuko gaixotasunetik eratorritako gastuak, eta parte hartzailearen aita, ama edo legezko tutorea edo, hala badagokio, ikastetxea izango dira gastu horien erantzule.

9. artikulua. Parte hartzaileek bete beharreko arauak

Parte hartzaileek honako betebeharrak izango dituzte:

a) Kasuan kasuko instalazioen erabilera arauak betetzea eta, hala dagokionean, parte hartuko duen jarduerarako bereziki ezarritakoak ere bai.

b) Gainera, honako arauak ere bete behar dira instalazio bakoitzera heldutakoan jakinaraziko diren arau orokorrez gain:

– Ordutegia errespetatzea.

– Jarduera guztietan parte hartzea.

– Ez jan ez edan logeletan.

– Erabiltzen den materiala eta, oro har, instalazioak zaintzea.

– Debekatuta dago egintza politikoak edo alderdikeriazkoak antolatzea edo haietan parte hartzea, bidezko adierazpen askatasunari kalterik egin gabe.

– Jarduera horiek elkarbizitzarako aukera bat direnez gero, ez da onartuko da beste pertsona batzueganako inolako jarrera baztertzailerik, xenofobo, homofobo, jazarpeneko edo beldurraraztekorik.

10. artikulua. Zehapen araubidea

a) Gazteriaren Foru Erakundeak eskainitako programetarako ezarritako bizikidetzak eta lankidetzak arauak edo, hala badagokio, gazte aterpetxeen barne erregimeneko araudia ez betetzeak jardueratik kanporatzea ekar dezake.

b) Arauak ez betetzeagatik edo kalte-galerak sortzeagatik kanporatzea larria bada, Gazteriaren Foru Erakundeak eskubidea izango du eskola programen beste programa edo edizio batzuetan eta/edo udako kanpainan parte hartzeari uko egiteko.

VI. Kapitula

Xedapen komunak

11. artikulua. Xedapen komunak

a) Jardueraren dinamika ez apurtzeko asmoz, ez da bisitarik onartuko. Gure programetan parte hartzen dutenek ezin izango dute alde egin edo instalazioan jaso jardueraren zuzendaria-
ren baimenik eta dagokion erantzukizun diligentziarik gabe, aitak, amak edo tutoreak sinatuta.

b) Telefono mugikorraren, tabletaren edo antzeko elementuen erabilera mugatuta egongo da jardueraren garapenaren ondorioz. Gazteriaren Foru Erakundea ez da, inola ere, galera, lapurreta edo kaltearen erantzule izango. Gauza bera gertatuko da parte hartzaileek jarduerara eramaten dituzten beste objektu baliotsuekin edo diruarekin.

c) Behin jarduera hasita, lehenengo bi egunetan baino ezin izango dira jardueran sartu, eta betiere justifikatutako arrazoirik badago, Gazteriaren Foru Erakundearen iritziz.

d) Ezingo dute araudi honetan arautzen diren jardueretan parte hartu etengabeko jarraipen medikoa, probak edo saiakuntzak egitea eta abar eskatzen duten tratamendu edo ikerketa medikoaren pean dauden neska-mutilek. Era berean, ez dira onartuko jarduera hasten denean gaixorik dauden partaideak. Gazteriaren Foru Erakundeak beretzat gordetzen ditu horri buruzko datuak ezkatatuz gero hartu beharreko ekintzak, eta araudi honetako 11. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

e) Parte hartzaileek izen ematean osatzen dituzten taldeak errespetatzen ahaleginduko da beti. 12 urtetik beherako umeak logeletan banatzeko, sexua ez da irizpide izango; baina, gure programetako hartzaileek 12 urte edo gehiago badituzte, sexuaren arabera banatuta egon aha-
lko dira logeletan edo kanpadendetan, baldin eta instalazioak horretarako bidea ematen badu.

12. artikulua. Baldintzak onartzea

Araudi honetan arautzen diren jardueretan parte hartzeko izena emateak berekin dakar araudi honetan ezarritako baldintza guztiak onartzea.

VII. Kapitula

Jendaurrean jartzea eta datuen babesa

13. artikulua. Jendaurrean jartzea

Udaraba kanpainari buruzko eta Gazteriaren Foru Erakundearen eskola programei buruzko informazio guztia web orri honetan argitaratuko da: <https://gazteria.araba.eus>.

14. artikulua. Datuen babesa

Datu pertsonalen babesari buruz aplikatu beharreko araudian xedatutakoarekin bat etorritik, araudi honen xede diren programak eta jarduerak izapidetzean bildutako datuak, baldin eta interesdunek eskabideak aurkeztuz tratatu eta argitaratzeko baimena ematen badute, Arabako Gazteriaren Foru Erakundearen titulartasuneko den eta haur, nerabe eta gazteentzako jar-
duerak kudeatzeko segurtasun neurri egokiak dituen «Kudeaketa» izeneko fitxategian sartuko dira, prozedura kudeatu eta pertsona interesdunei horien garapenaren berri emateko xedea-
rekin. Gazteriaren Foru Erakundea da fitxategi horren organo eskuduna. Datuetan sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubidea aipatutako organo horretan egikaritu ahal izango dira, Gazteriaren Foru Erakundeko bulegoaren posta helbidera edo posta elektronikoko dpo.ifj@araba.eus helbidera mezu bat bidalita.

Datu horiek beste erakunde publiko batzuei laga edo jakinaraziko zaizkie aurreikusitako egoeretan eta udako kanpainaren garapenerako behar-beharrezkoak diren egoeretan.

Udaraba programan parte hartzen dutenen familiek izen emate inprimakian baimena emango dute partaideei argazkiak atera dakizkien. Eskola programen kasuan, ikastetxeek euren jasoko dituzte familien banakako baimenak, Gazteriaren Foru Erakundearen web orrian eta programetako egonaldiaren egunerokoan argazkiak ateratzeko.

Udako kanpainan edo eskola programetan parte hartzen duten ume bati argazkiak atera eta zabaldu ahal izateko, ume horren arduradunak argazki horiek lagatzeko baimena eman behar du. Irudiek ez diote adingabeen intimitateari eraso egin behar. Argazki horien bidez garatutako jardueraren adibide batzuk eman nahi dira, besterik ez; beraz, ez da bermatzen argazki horietan partaide guzti-guztiak agertzea.

VIII. Kapitulua

Errekurtsoak

15. artikulua. Errekurtsoen araubidea

Arautegi honetan azaldutako prozeduretan izandako ebazpenen, argitalpenen eta izapideen aurka, interesdunek administrazio publikoen administrazio prozedura erkideak arautzen dituen errekurtsoak jarri ahal izango dituzte.

IX. Kapitulua

Beste xedapen batzuk

Lehenengo xedapen gehigarria. Garapena eta gauzatzea

Gazteriaren Foru Erakundearen Kudeaketako Zuzendaritzari ahalmena ematen zaio Gazteriaren Foru Erakundearen programa eta kanpainetan araudi hau garatu eta betearazteko beharrezkoak diren egintzak eta ebazpenak emateko.

Azken xedapena. Indarrean jartzea

Araudi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.